



- *Biharko*
- *Zumaiara*
- *boga*

- ZUMAIA 2015/2025 PLANA

PLAN ESTRATEGIKOA

Sintesi-txostena

SARRERA

Zumaiako Udalak egunerokotasunetik begirada jaso eta epe ertain-luzeko ikuspegiarekin lan egin du Biharko Zumaiara Boga 2015-2025 Plan Estrategikoaren prozesuan eta etorkizuneko herri-eredua zehazteko ibilbidea herritarrekin batera egin du.

la 200 herritarrek parte hartu duten urte beteko prozesua izan da Biharko Zumaiara Boga, eta arlo desberdineko eragile, aditu eta herritarrek hartu dute parte prozesuan. Udaleko teknikariez eta ordezkari politikariek osatutako batzordeek ere lanean jardun dute paraleloan, eta elkarren artean sortutako emaitza da sintesi-dokumentua hau.

Dokumentu honek Zumaiaren egungo egoera deskribatzen du 22 argazkitan eta etorkizuneko Zumaiaren estrategiak eta proiektu estrategikoak jasotzen ditu.



Prozesuan modu aktiboan zein zeharka parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Udalak, emaitza hau ez litzatekeelako posible izango beraiek gabe.

Plan estrategikoaren gaineko informazio osatuagoa eskuratzeko, Zumaiako Udaleko webgunean kontsultatu daiteke Zumaia.eus helbidean.

Eskerrik asko

Plan Estrategikoaren Talde Eragilea

DIAGNOSTIKOA: NOLAKOA DA ZUMAIA?

Gaurko Zumaia 22 argazkitan

Biharko Zumaia Boga

LURRALDE-ANTOLAMENDUA

Herriaren hazkundea

- 1** Azken urteotan asko hazi da Zumaia, etxe eta industrialde berriak eraiki dira. Orain arteko ereduaren inguruko hausnarketa beharrezkoa da; herriak zenbat eta nola hazi behar duen zehaztu behar da.

Hiri-planifikazioa

- 2** Arau Subsidiarioak eguneratu behar dira, paisaiaren antolaketa eta lurralde jasangarriaren helburua jasota, eta etxebizitza-eskaria zehaztuta.

Auzoak

- 3** Auzoak birgaitu eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak (igogailuak jartzea, espaloiak zabaltzea...) behar dira. Behar handiena duten auzoen artean daude Alde Zaharra (Plan Berezia beharko duena), San Jose-Odieta eta Estazioko auzoa.

Mugikortasuna

- 4** Oinezkoek eta bizikletek protagonismo handiagoa hartzeko, autoen presentzia gutxitzea eta aparkalekuak antolatzea beharrezkoa da.

Ingurumena

- 5** Natura eta geologian herri aberatsa da Zumaia (Biotopoa, Urolako itsas adarra, flyscha...). Aberastasun hori aintzat hartu, eta kudeaketa-planak garatu behar dira. Bestelako erabilera batzuekin bateragarritasuna landu behar da (nekazaritza, hirigintza, turismoa...).

GARAPEN EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa

- 6** Herri aberatsa da Zumaia (norbanako Barne Produktu Gordinean Aia edo Getariaren azpitik baina Gipuzkoa eta EAeko batezbestekoen gainetik dago), baina alde handiak daude sektoreen, adin-tarteen eta sexuaren arabera.

Turismoa

- 8** Turismoak gorakada izan du azken urteotan. Geoparkea oinarri duen kalitatezko turismoaren aldeko apustua egin da, lurraldearen garapen jasangarriaren aldekoa, eta hori garatzeko, beharrezkoa da azpiegiturak (Algorriko Interpretazio Zentroaren zaharberritzea, aparkalekuak...) eta zerbitzuak (bisita gidatuak, garraioa, ostalua, jatetxeak, dendak...) aurreikustea.

Udalaren ekonomia- eta finantza- egoera

- 10** Udalaren ekonomia- eta finantza-egoera ona da, aurrekontuak orekatuak daude eta ia ez du zorrik. Zarautz eta Aiarekin batera, biztanle bakoitzeko Urola Kostako gastu baxuenetakoa duen herria da, aurrekontuetako inbertsioen gauzatze maila mugatuagatik, batez ere.

Sektore ekonomikoak

- 7** Lehen sektoreak pisu oso mugatua du herriko ekonomian. Industria da Zumaiaiko sektore ekonomiko nagusia, eta garatzeko azpiegitura egokiak daude. Zerbitzuak, pixkanaka, indartzen ari dira. Laugarren sektorearen koordinazio eta garapenean aurrera egin dezakegu, besteak beste, zaintza-lanen inguruko ekonomia-jarduera antolatu eta garatuta.

Lan-baldintzak eta langabezia

- 9** Gutxigatik bada ere, lanerako adina eduki eta lanean edo lan bila dabilen biztanleriaren ehuneko baxuena duen herria da Urola Kostan, bai eta langabezia-tasa baxuena duena ere. Nolanahi ere, emakumeek, gazteek eta 45 urtetik gorakoek zailtasunak dituzte kalitatezko lan-baldintzak lortzeko.

ZERBITZU ETA EKIPAMENDUAK

Gizarte Zerbitzuak

- 11** Gizarte Zerbitzuek laguntza ematek harago, lan hezitzailea egiten dute. Arlo honetako baliabideak hazi badira ere, beharrek ere nabarmen egin dute gora (beste jatorri bateko pertsonak, langabetuak, desgaitasunak dituztenak, menpekotasuna, baliabide falta dutenak, gizarteratzeko zailtasunak dituztenak, familia/haur/nerabeak...), eta gero eta kasu konplexuagoak dira. Baliabide gehiago behar dira.

Familia, haur eta gazteak

- 14** Familia, haur eta gazteentzako zerbitzu ugari dagoen arren, horiek indartzeko beharra ikusten da: arlo asistentzalean zein aisialdian (Ludoteka eta Gaztegunea txiki geratu dira, 0-6 urteko haurrentzako eskaintza indartzeko beharra dago). Gazteen beharrak zeintzuk diren jaso eta beraiekin batera plangintza bat garatzeko beharra dago, gazteen etorkizuna landu eta hobetzeko.

Hezkuntza-eskaintza

- 16** 0-18 urte arteko hezkuntza-eskaintza zabala dago Zumaian, baina ikasle-kopuruaren hazkundeari erantzuteko ikastetxeen instalazio eta azpiegiturak handitu eta berritzeko premia larria dago. Programa asko garatzen dituzte ikastetxeek udalarekin elkarlanean. Ikastetxeen arteko elkarlana sustatzen jarraitzea ongi baloratzen da.

Gizarte Zerbitzuak

- 12** Gizarte Zerbitzuen alorra berrantolatzeko, beharrezkoa da zerbitzuak ezagutzera ematea eta ekipamenduen gaineko hausnarketa egitea.

Adinekoak

- 13** Adinekoentzako zerbitzu ugari dago herrian, baina indartu eta egungo beharretara egokitzeko premia dago.

Kultur azpiegiturak

- 15** Kultur azpiegitura asko daude eta programazioa egonkorra da. Zenbait eraikinen erabilera-irizpideak zehaztu (Torreberri, Komentuko kapera...) eta beraien arteko koordinazioan hobetu beharra dago. Hainbat azpiegiturak hobekuntzak behar dituzte: liburutegiak espazio falta du, udal-artxiboa erabiltzeko mugak daude, elkarte askok espazio falta dute, Forondak, Ubillosek eta Zinemak hobetze-lanak behar dituzte. Kultur eragileen arteko koordinazioa eta elkarlanean hobetu beharra dago.

Kirol-instalazioak

- 17** Kirol-instalazio ugari dago, baina biztanleriaren hazkundeari erantzuteko azpiegiturak handitu eta zaharberritze lanak garatzeko premia handia dago, eta lan horiek planifikatu egin behar dira. Kirol-elkarte ugari eta oso aktiboak daude, eta herritar askorengana iristen dira (eskola-kirola, guztiontzako kirol-jarduerak, txapelketak, sariak...). Kirol-hezitzaileen prestakuntzan sakondu beharra dago.

HERRIGINTZA ETA ELKARBIZITZA

Euskara

18 Udalerri euskalduna da Zumaia, hizkuntza-politika definitua duena. Ezagutzak gora egin badu ere, erabilerak beherazko joera hartu du azken hamar urteotan. Euskara eta gaztelania uztartzeko estrategiak landu behar dira, 'hiztun pasiboak' bultzatuz. Herriko hizkera babesteko neurriak behar dira.

Kultura-aniztasuna

19 Zumaiarren % 17,6 Euskal Herriatik kanpo jaiotakoa da, eta aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko baldintza egokiak daude, nahiz aurreiritzietan eta 'bertakoa' eta 'kanpoko' dikotomian lanketa sakona egin behar den. Etorri berrien bizi-baldintzak eta integrazioa hobetzeko lanean jarraitu behar da. Etorri berrientzat harrera-aterpetxea eta baliabide gehiagoren beharra ikusten da.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna

20 Berdintasun-politikak bultzatzeko saila dago Udalean, hainbat plan eta programa garatu dira (emakumeei erantzun integrala ematera bideratuak, indarkeria matxistaren kontra, balioak lantzeko, aukera-berdintasuna sustatzeko...), eta Berdintasun Foroa eratua da, baina desberdintasun handiak daude, oraindik, Zumaian (lan-munduan, gizartean, errentetan, segurtasunean, kirolean, kulturean, hezkuntzan...), eta horiek lantzen jarraitu behar da.

Bakegintza eta memoria historikoa

21 Bakegintza eta memoria historikoa gutxi landutako gaiak dira, eta sakontzeko premia dago. Beharrezkoa da sufrimendu guztiak ezagutu eta partekatzeko ekimenak bultzatzea eta errekonozimendua aitortzeko ekimenak martxan jartzea.

Herrigintza

22 Herri bizia eta dinamikoa da, askotariko elkarteak dituena (kiroletakoak, kulturakoak, aisialdikoak, ingurumenekoak, merkataritza, euskara, gizarte-arlokoak, jai-batzordeak, gastronomikoak...). Elkarte horien arteko harremanak sustatu beharra dago eta elkarren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko alderdiak dira. Herriarren inplikazioa areagotzeko bideak urratu behar dira (elkarteetan, Udalaren partaidetza-prozesuetan, auzoetan...).

IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Zer nolako Zumaia nahi dugu 2025ean?

Herritarren bizi-kalitatea lehentasun duen Zumaia; herrian bizi eta lan egiteko zerbitzu eta azpiegiturak eskainiko dituen, herriak dituen berezitasunak eta baliabideak aintzat hartuta.

Gizarte, ekonomia eta ingurugiro aldetik jasagarria, sektore ekonomikoen arteko oreka eta harremana zainduko dituen, turismo iraunkorra eta etxebizitza duinerako eskubidea sustatuko duena eta herritar guztiek aukera berdinak izatea bideratuko duena. Herritarrekin batera herritarren ongizatea bermatuko duen herria.

Zer ezaugarri izan behar ditu Zumaiak?

- Pertsonak ardatz dituen; pertsonen ezberdintasunak errespetatzen dituen, autonomia sustatzen duena, herri hezitzailea eta elkarrengandik ikasteko urratsak ematen dituen.
- Berezko nortasuna duen herria, euskalduna eta anitza. Baina, era berean, herri irekia, eta munduan kokatuta dagoena.
- Herri erakargarria, paisaia aldetik, ingurumenarekin errespetuan biziko dena eta harekiko errespetuz jokatu duena, bere xarma zainduko duena.
- Herri irisgarria eta eroso, oztoporik gabea, segurua, eta erraz mugitzekoa. Herrigunea eta auzoen arteko erlazioa eta oreka kontuan hartuko duena eta era berean inguruko herriekin ondo konektatuta dagoena.
- Kultura eta kirola sustatzen dituen herria, jarduera horiek elkarlanean, lankidetzaz-sareak osatuta aurrera eramaten dituen erakunde eta eragileen artean. Herri bizia, aktiboa eta parte hartzailea.

Nolako herritarrak nahi ditugu? Zein balio sustatuko dituzte?

Nortasun propioa dutenak

Duten ingurunea, kultura eta baliabideak baloratzen dakitenak eta era berean, mundura irekiak daudenak.
Etengabe berritzeko eta hobetzeko grina dutenak.

Euskaldunak eta anitzak

Euskaraz bizi nahi dutenak eta kanpotik datorrena ondo hartuko dutenak, datozen kultura berriek norberarena aberasten duten ikuspegitik.
Bizikidetzarako jarrera dutenak.

Berdintasunean hezitakoak

Sexu, adin, jatorri, sinismen, lan-baldintza, bizi-baldintza desberdinak dituzten herritarrak elkar onartzea eta errespetatzea, eta berdintasunez tratatzea. Justizia sozialean oinarritzen direnak, aukerak guztiontzako berdinak izatearen alde daudenak.

Elkarlana, kooperazioa, koordinazioa

Sare-ikuspegiarekin lan egiten duten herritarrak, elkarlanerako jarrerak sustatuz eta bizitzaren zaintza balioan jarritz. Herrigune eta auzoen arteko elkarbizitzaren alde dauden herritarrak.

Ingurumenarekiko errespetuz jokatzeko dutenak

Ingurumena eta inguruko natura-baliabideekiko errespetuz jokatzeko dutenak.


Solidarioak eta justuak

Barrura zein kanpora begira lan egingo duena. Hau da, herriaren alde lan egiten duena eta beste herritarren bizi-kalitatearekiko errespetuz jokatzeko duena; eta kanporabegira ere lan egiten duena, laguntza humanitarioa edo proiektu jakinetan parte hartuz.

Gizartean eragile dinamikoak

Kulturazaleak, kirolzaleak, parte-hartzaileak.

LERRO ESTRATEGIKOAK



HELBURU ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

BIZITZEKO HERRIA

Zumaia bizitzeko herri eroso, jasangarria, irisgarria, segurua eta erraz mugitzeko modukoa izatea biltzen du lerro estrategiko honek. Horretarako, ezinbestekoa da pertsonak oinarri izango dituen hiri-planifikazioa egitea, irisgarritasuna eta mugikortasuna oinezkoen ikuspegitik garatuko duena, auzoak hobetuz. Halaber, naturguneak eta landa-eremua balioan jarri eta ingurumenaren kudeaketa integrala egitea aurreikusten da, herritarren ongizatea hobetzeko kalitatezko zerbitzuak eskaintzarekin batera.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Pertsonak oinarri izango dituen hiri-planifikazio jasangarria egitea

2. Auzoen birgaitzea eta irisgarritasuna bermatzea

3. Naturguneak eta landa-eremua babestu eta balioan jartzea

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

- 1.1. Hazkunde-ereduaren gaineko hausnarketa egitea eta hazkuntzarako plana egitea
 - 1.2. Gizarte-ikuspegian oinarritutako etxebizitza publikoen politika zehaztea
 - 1.3. Mugikortasun osasuntsua oinarrian duen Plana berritzea eta gauzatzea
 - 1.4. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzea
-
- 2.1. Irisgarritasun Plana berritzea
 - 2.2. Bizileku erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzak irisgarritasuna sustatzea
 - 2.3. Auzoetan irisgarritasuna hobetzeko, oztopo arkitektonikoak gainditzeko eta espazio publikoak berreskuratzeko eta auzoetako azpiegiturak hobetzeko beharrezko planak garatzea
-
- 3.1. Geoparkearen kudeaketa Zumaiara egokitzea
 - 3.2. Biotopoaren kudeaketa-plana diseinatzea eta garatzea
 - 3.3. Urolako Plan Berezia garatzea
 - 3.4. Herria eta ingurunea elkartzea, natura berreskuratzea
 - 3.5. Hondartzen kudeaketa egokia egitea eta zerbitzu egokia eskaintzea
 - 3.6. Ingurumen-heziketan sakontzea

HELBURU ESTRATEGIKOAK

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

4. Ingurumenaren kudeaketa integrala egitea

- 4.1. Energia-kontsumoa murriztea
- 4.2. Kutsadura gutxitzeko neurriak hartzea
- 4.3. Hondakinen kudeaketa eraginkorra egitea
- 4.4. Udal-jardunean eta -kudeaketan, iraunkortasun-irizpideak lantzea eta txertatzea

5. Herriko azpiegiturak eta ondarea hobetzea eta aktibatzea

- 5.1. Azpiegituren gaineko hausnarketa egitea eraikinen erabilerak zehaztu eta horiek zaharberritzeko, eta azpiegituren arteko sarea osatzea
- 5.2. Kirol-ekipamenduak berritzeko plana egitea eta eraikinen mantenu plan orokorra gauzatzea
- 5.3. Hezkuntzako instalazio eta azpiegiturak handitzea, hobetzea eta berritzea
- 5.4. Aisialdirako eredia definitu eta aisialdirako espazioak sortzea adin ezberdineko herritarrentzat
- 5.5. Gizarte Zerbitzuen alorreko eraikinen mantentze-plan orokorra garatzea
- 5.6. Ondare kulturala babestea

6. Herritarren ongizatea hobetzeko kalitatezko zerbitzuak eskaintzea

- 6.1. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak herrian ezagutaraztea eta herritarra informatzea
- 6.2. Gizarte zerbitzuen alorra berrantolatzea, beharrei modu egokian erantzuteko eta Gizarte Zerbitzuen lege berrira egokitzeko (185/2015 dekretua)
- 6.3. Baldintza konplexu eta zailetan bizi diren herritarrei laguntza ematea
- 6.4. Adinekoen beharrak jaso eta horiei erantzuteko zerbitzuak garatzea
- 6.5. Haur eta gazteei begira elkarrekin lan egitea, beharrei erantzunez
- 6.6. Etorri berriei zuzendutako zerbitzua indartzea
- 6.7. Kalitatezko hezkuntza-eskaintza mantentzea
- 6.8. Osasun-zerbitzua hobetzea

7. Herri segurua izatea

- 7.1. Pertsonen segurtasuna bermatzea, beharrezko neurriak hartuta

ELKARREKIN BIZITZEKO HERRIA

Herritarren arteko elkarbizitza eta elkartasuna sustatzea bilatzen da; euskararen arnasmune den herria; emakume eta gizonen aukera-berdintasunean oinarritua; herri bizi eta dinamikoa, horretarako kultura, kirola, hezkuntza zein gizarte arloko eragileekin elkarlana bultzatuko duena.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

8. Herritarren arteko elkarbizitza eta elkartasuna sustatzea

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

- 8.1. Herriko komunitate eta kultura ezberdinen elkarren ezagutza eta errespetua sustatzea
- 8.2. Komunitatearen zaintzan sakontzea eta arazo komunei modu bateratuan erantzutea gizarte-politika berriak eginez
- 8.3. Bakegintza eta memoria historikoaren bidea eraikitzea

9. Euskaraz bizi den herria eta euskararen arnasmune den herria izatea

- 9.1. Guztion hizkuntza-eskubideak bermatuz, elkarrekin bizitzea
- 9.2. Euskara ikasteko eta erabilera sustatzeko beharra sortzea
- 9.3. Ikastetxeekin eta herriko elkarteekin elkarlanean jarraitzea
- 9.4. Herriko hizkera bultzatzea
- 9.5. Udala eredu izatea euskararen erabilerari dagokionez
- 9.6. Udalak onartuak dituen euskara-planekin aurrera jarraitzea

10. Berdintasun-politikak indartu, desberdintasunak gainditzen joateko

- 10.1. Indarkeria matxistari aurre egitea
- 10.2. Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko espazioak sortzea
- 10.3. Lan-munduan berdintasuna sustatzea
- 10.4. Erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna sustatzea
- 10.5. Berdintasuna eskoletatik lantzea
- 10.6. Ikuspegi lanketa egitea
- 10.7. Kirolean genero-ikuspegia lantzea eta kirola egiten duten emakumeak bisibilizatzea
- 10.8. Udaleko sail ezberdinetan genero-ikuspegia txertatzea
- 10.9. Berdintasun-planean adostutakoari jarraipena ematea

HELBURU ESTRATEGIKOAK

11. Herri bizia eta dinamikoa izatea

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

- 11.1. Herrian sormen kulturala sustatzea
- 11.2. Herrian kirolzaletasuna sustatzea
- 11.3. Elkarleen arteko harremana, elkarlana eta koordinazioa sustatzea
- 11.4. Udalak, herritarrekin eta elkarteekin duen harremana elkarlanean oinarritzea, parte-hartzea bultzatuz
- 11.5. Ikastetxeen arteko elkarlana eta ikastetxe eta herriko elkarten arteko elkarlana sustatzea
- 11.6. Tokiko merkataritza sustatzea

LAN EGITEKO HERRIA

Zumaian bizitzeko kalitatezko lan-aukerak sortzea ezinbestekoa da, dagoenari eutsiz, eta aukera berriak sortuz. Sektoreen lehiakortasuna hobetu, ekintzailtza eta herrian lan egiteko baldintzak erraztu, langileen lan-baldintzak hobetu, eta jardueren dibertsifikazioa sustatzea du xede lerro estrategiko honek.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

12. Lanpostu berriak sortzea enpresen lehiakortasuna indartuz

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

- 12.1. Lehen sektoreko enpresen lehiakortasuna sustatzea
- 12.2. Industria-enpresen lehiakortasuna sustatzea
- 12.3. Zerbitzu-enpresen lehiakortasuna sustatzea
- 12.4. Enpresetan adimen lehiakorra garatzea
- 12.5. Enpresen arteko lankidetzak sustatzea
- 12.6. Enpresen eta formakuntza-zentroen arteko elkarlana sustatzea
- 12.7. Enpresa eta udalaren arteko elkarlana sendotzea

13. Ekintzailtza sustatzea eta herrian lan egiteko baldintzak erraztea

- 13.1. Enpresa berriak sortzen laguntzea eta ekimen berrien finantzaketa erraztea
- 13.2. Coworking-espazioak sortuz, lanerako espazioak erraztea

HELBURU ESTRATEGIKOAK

14. Lan-baldintzak hobetzea

- 14.1. Sektore guztietan emakumeen lan-baldintzak hobetzea
- 14.2. Gazte eta helduen lan-baldintzak hobetzea
- 14.3. Udala eredu lan-baldintzen hobekuntzan

15. Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa sustatzea

- 15.1. Sektoreen arteko orekarako bideak bultzatzea
- 15.2. Zaintza-lanen inguruko ekonomia garatzea, gizarte-beharrei erantzun eta ekonomia solidarioan urratsak emateko

MUNDURA IREKITA DAGOEN HERRIA

Zumaia ez da herri isolatua, eta hortaz, eskualdeko gainerako udal, eragile zein herriekin elkarlanean jardun behar du. Eta ez soilik ingurune hurbilenarekin, baita Gipuzkoako, Euskal Herriko zein nazioarteko bestelako sareetan parte hartu behar du.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

16. Kalitatezko turismo jasangarria sustatzea, herriaren nortasuna mantenduta

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

- 16.1. Turismo-eredua aztertzea eta zer turismo mota bultzatu nahi dugun zehaztea
- 16.2. Turismo-jarduera indartzea, turistak herrian kontsumitzera bultzatuko dituen kalitatezko turismoa bilatuz
- 16.3. Turismorako baliabide eta azpiegiturak moldatzea
- 16.4. Gastronomía indartzea

17. Herriaren gertuko loturak indartzea

- 17.1. Urola Kostako Udal Elkarteko beste herriekin (Aia, Getaria, Orio, Zarautz) elkarlana indartzea
- 17.2. Geoparkeko beste herriekin (Deba, Mutriku) elkarlana indartzea
- 17.3. Urkome, Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarteko herriekin (Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa) elkarlana indartzea
- 17.4. Eskualdetik kanpoko eragileekin elkarlana indartzea

18. Herriaren nazioarteko loturak indartzea

- 18.1. Kooperazio-politikak garatzea

JARDUERA-PLANA

Proiektu estrategikoak, lehenetasun-, kostu- eta iraupen-irizpideen arabera

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK LEHENTASUNAREN, KOSTEAREN ETA IRAUPENAREN ARABERA

BIHARKO ZUMAIARA BOGA 2015-2025

PROIEKTUA	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
1.2. Gizarte-ikuspegian oinarritutako etxebizitza publikoen politika zehaztea (hirigintza-planaren baitan)									
2.1. Irisgarritasun Plana berritzea									
3.2. Biotopoaren kudeaketa-plana diseinatzea eta garatzea									
16.1. Turismo-eredua aztertzea eta zer turismo mota bultzatu nahi dugun zehaztea									
4.3. Hondakinen kudeaketa eraginkorra egitea									
5.4. Aisialdirako eredia definitu eta aisialdirako espazioak sortzea adin ezberdineko herritarrentzat									
6.2. Gizarte Zerbitzuen alorra berrantolatzea, beharrei modu egokian erantzuteko eta Gizarte Zerbitzuen lege berrira egokitzeko (185/2015 dekretua)									
6.8. Osasun-zerbitzua hobetzea									
10.3. Lan-munduan berdintasuna sustatzea									
15.2. Zaintza-lanen inguruko ekonomia garatzea, gizarte beharrei erantzun eta ekonomia solidarioan urratsak emateko									
16.2. Turismo-jarduera indartzea, turistak herrian kontsumitzera bultzatuko dituen kalitatezko turismoa bilatuz									
16.4. Gastronomia indartzea									
1.4. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzea									
3.5. Hondartzen kudeaketa egokia egitea eta zerbitzu egokia eskaintzea									
5.3. Hezkuntzako instalazio eta azpiegiturak handitzea, hobetzea eta berritzea									
16.3. Turismorako baliabide eta azpiegiturak moldatzea									
5.1. Egungo azpiegituren gaineko hausnarketa egitea, eraikinen erabilerak zehaztu eta horiek zaharberitzea, eta azpiegituren arteko sarea osatzea									
2.3. Auzoetan irisgarritasuna hobetzeko, oztopo arkitektonikoak gainditzeko, espazio publikoak berreskuratzeko eta azpiegiturak hobetzeko beharrezko planak garatzea									
6.3. Baldintza konplexu eta zailetan bizi diren herritarrei laguntza ematea									
6.4. Adinekoen beharrak jaso eta horiei erantzuteko zerbitzuak garatzea									
6.5. Haur eta gazteei begira elkarrekin lan egitea, beharrei erantzunez									
7.1. Pertsonen segurtasuna bermatzea, beharrezko neurriak hartuta									
8.1. Herriko komunitate eta kultura ezberdinen elkar ezagutza eta errespetua sustatzea									
10.9. Berdintasun-planean adostutakoari jarraipena ematea									
11.3. Elkarrekin arteko harremana, elkarlana eta koordinazioa sustatzea									
17.1. Urola Kostako eskualdeko beste herriekin (Aia, Getaria, Orio, Zarautz) elkarlana indartzea									
1.1. Hazkunde-ereduaren gaineko hausnarketa egitea eta hazkuntza plana egitea (hirigintza-planaren baitan)									
4.1. Energia-kontsumoa murriztea									
6.1. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak herrian ezagutaraztea eta herritarra informatzea									
12.1. Lehen sektoreko enpresen lehiakortasuna sustatzea									
4.2. Kutsadura gutxitzeko neurriak hartzea									
1.3. Mugikortasun osasuntsua oinarrian duen Plana berritzea eta gauzatzea									
3.6. Ingurumen-heziketan sakontzea									
5.2. Kirol-ekipamenduak berritzeko plana egitea eta eraikinen mantenu plan orokorra gauzatzea									
8.3. Bakegintza eta memoria historikoaren bidea eraikitzea									
9.1. Guztien hizkuntza-eskubideak bermatuz, elkarrekin bizitzea									

■ Kudeaketa kostua
 ■ < 18.000 €
 ■ 18.000-50.000 €
 ■ 50.000-100.000 €
 ■ > 100.000 €

OHARRA: Kostuak, proiektua garatuko den urte guztien batura dira.

LEHENTASUN ERTAINA

LEHENTASUN BAXUA

PROIEKTUA	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
9.2. Euskara ikasteko eta erabilera sustatzeko beharra sortzea									
10.1. Indarkeria matxistari aurre egitea									
10.5. Berdintasuna eskoletan lantzea									
10.8. Udaleko sail ezberdinetan genero-ikuspegia txertatzea									
11.4. Udalak, herritar eta elkarteekin duen harremana elkarlanean oinarritzea, parte hartzea bultzatuz									
11.6. Tokiko merkataritza sustatzea									
12.2. Industria-enpresen lehiakortasuna sustatzea									
12.3. Zerbitzu-enpresen lehiakortasuna sustatzea									
12.5. Enpresen arteko lankidetzatza sustatzea									
12.7. Enpresa eta Udalaren arteko elkarlana sendotzea									
13.1. Enpresa berriak sortzen laguntzea eta ekimen berrien finantzaketa erraztea									
13.2. Coworking espazioak sortuz, lanerako espazioak erraztea									
14.1. Sektore guztietan emakumeen lan-baldintzak hobetzea									
14.2. Gazte eta helduen lan baldintzak hobetzea									
14.3. Udala eredu lan baldintzen hobekuntzan									
18.1. Kooperazio-politikak garatu									
3.3. Urolako Plan Berezia garatzea									
8.2. Komunitatearen zaintzan sakontzea eta arazo komunei modu bateratuan erantzutea gizarte politika berriak eginez									
10.2. Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko espazioak sortzea									
11.1. Herrian sormen kulturala sustatzea									
4.4. Udal-jardunean eta -kudeaketan, irakunkortasun irizpideak lantzea eta txertatzea									
9.4. Herriko hizkera bultzatzea									
2.2. Bizileku erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzea									
5.5. Gizarte Zerbitzuen alorreko eraikin mantentze-plan orokorra garatzea									
6.6. Etorri berriei zuzendutako zerbitzua indartzea									
6.7. Kalitatezko hezkuntza-eskaintza mantentzea									
9.3. Ikastetxeekin eta herriko elkarteekin elkarlanean jarraitzea									
9.5. Udala eredu izatea euskararen erabilerari dagokionez									
9.6. Udalak onartuak dituen euskara-planekin aurrera jarraitzea									
10.4. Erantzukidetasuna eta bateragarritasuna sustatzea									
10.6. Ikuspegi lanketa egitea									
10.7. Kirolean genero-ikuspegia lantzea eta kirola egiten duten emakumeak bisibilizatzea									
11.2. Herrian kirolzaletasuna sustatzea									
11.5. Ikastetxeen arteko elkarlana eta ikastetxe eta herriko elkarteen arteko elkarlana sustatzea									
12.4. Enpresen adimen lehiakorra garatzea									
12.6. Enpresen eta formakuntza-zentroen arteko lankidetzatza sustatzea									
17.3. Urkome, Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarteko herriekin (Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa) elkarlana indartzea.									
17.4. Eskualdetik kanpoko eragileekin elkarlana indartu									
3.1. Geoparkearen kudeaketa Zumaiara egokitzea									
5.6. Ondare kulturala babestea									
17.2. Geoparkeko beste herriekin (Deba, Mutriku) elkarlanean kudeaketa-plana garatzea									
15.1. Sektoreen arteko orekarako bideak bultzatzea									
3.4. Herria eta ingurunea elkartzea, natura berreskuratzea									

■ Kudeaketa kostua
 ■ < 18.000 €
 ■ 18.000-50.000 €
 ■ 50.000-100.000 €
 ■ > 100.000 €

OHARRA: Kostuak, proiektua garatuko den urte guztien batura dira.